

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

KULTURA, HEZKUNTZA ETA KIROL SAILA

2021erako kirol diru-laguntzetarako deialdi orokorra arautuko duten berriazko oinarriak

2020ko abenduaren 11n onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntzen deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2020ko abenduaren 30ko ALHAOn (148. zenbakia) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta Udalaren webgunean kontsulta daitezke (www.vitoria-gasteiz.org), baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Deialdi honetara aurkeztu nahi duten entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko eskabideak non eta nola aurkeztu, zein betebeharrak izango dituzten, dirulaguntzak nola justifikatu behar diren, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

Lehen. Deialdiaren xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea da 2021. urtean Gasteizko udalerrian egingo diren edo herritarrek parte hartzeko izango diren jolas eta kirol jardueren antolaketa eta garapena sustatzeko dirulaguntzak emateko deialdia arautzea, ezarritako aurrekontuaren mugen barruan.

Kirol-erakundeek antolatutako kirol-jarduera diruz laguntzeko aurreko deialdian sortutako ildoak mantentzen da. Izan ere, kirol-entitateek eta Kirol Zerbitzuak partekatutako helburua baita herritarren artean kirol-jarduera eta ohitura osasungarriak sustatzen jarraitzea.

Ildo hori aldi baterako da, eta mantentzen da osasun-egoerak sortutako ziurgabetasunagatik eta elkarteek beren jarduerak egiten jarraitzeko dituzten zailtasunengatik.

Era berean, "A eta B multzoak" bakar batean batu dira, zaila delako alde aurretik jakitea aurreko zeintzuk jarduera-mota egin ahal izango diren, eta bi multzoetako jarduera-tipologia antzekoa delako. Hori horrela, fusioaren helburua da eskura dauden baliabideak modu eraginkorragoan eta bidezkoagoan banatzea.

Hemen arautzen diren laguntzek dirulaguntza izaera dute, eta arau hauen mende daude: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua -uztailaren 21eko 887/2006 ED-, Gasteizko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Udal Ordenantza, oinarri arautzaile hauek eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 5.1 artikuluan aipatzen diren xedapenak.

COVID-19ri buruzko osasun-araudia betetzea, ekitaldiak antolatzean.

Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du osasun-agintariek unean-unean eman dako neurriak betetzeko eta betearazteko, hitzarmen hau gauzatzean antolatzen dituen egintza edo ekitaldiei dagokienez, eta erakunde onuradunak bakarrik izango du indarrean dagoen osasun-araudia betetzeko ardura.

Bigarrena. Aurrekontu kreditua

Kirol eta Osasun Sailaren 2021eko ekitaldiko 24.40.03.3411.48935 aurrekontu-partidari egotziko zaizkio dirulaguntzak; deialdiari dagozkion dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa 356.500,00 eurokoa izango da guztira, erabilgarri dagoen kredituaren barruan.

Gehieneko zenbateko hori honela banatuko da:

A multzoa: 110.500,00 euro.

B multzoa: 84.000,00 euro.

C multzoa: 50.000,00 euro.

D programa: 24.000,00 euro.

E programa: 78.000,00 euro.

Aurkeztutako proiektuak balioetsi ondoren, baldin eta programetakoren bat hutsik geratzen bada edo kreditua sobera geratzen bada, proiektuak balioestearen ardura duen organoak programa horietatik beste batzuetara kreditua aldatzeko ahalmena izango du, betiere deialdi honetan onetsitako aurrekontu-kreditua gainditu gabe.

Adierazi den gehieneko zenbatekoaz gain, baliteke zenbateko gehigarririk ematea dirulaguntza gisa, beste deialdi bat egin behar gabe, baldin eta, zenbateko gehigarria egotziko zaien kredituak deialdiaren unean erabilgarri egon ez arren, aurreikusten bada erabilgarri egongo direla dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretiko edozein unetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduak-uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua- 58.2 artikuluan aurreikusten dituen kausetakoren batengatik handituko direlako. Zenbateko gehigarria ematekotan aski kreditu izan beharko da erabilgarri, Erregelamenduaren 58. artikuluan aurreikusten diren zirkunstantzien ondorioz, eta, behar izanez gero, dagokion aurrekontu-aldakuntza egin beharko da horretarako, dirulaguntza emateko ebazpenaren aurreko edozein unetan.

Hirugarrena. Entitate onuradunak

2021eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren Eskatzaileak atalean finkatutako irizpideen ildotik, eta bertan ezarritako baldintzak betetzen dituztelarik, irabazi-asmorik gabeko kirol-entitateak nahiz beren jardunaren ezaugarriak direla eta oinarriekin bat datozen irabazi-asmorik gabeko bestelako entitateak izan ahalko dira dirulaguntzen ildo honen onuradun, diruz lagun daitezkeen jarduerak antolatzen badituzte eta oinarri hauetan adierazten den moduan eta epe barruan eskatzen badute dirulaguntza.

Horretaz gain, entitate eskatzaileek Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Nagusian -edo dena delako Erregistro Publikoan- izena emanda egon behar dute, eta datuak eguneratuta eduki, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik.

Dirulaguntzen deialdi publikoan parte hartzeko, erakunde eskatzaileek Gasteizko udalerrian izan behar dute helbidea, behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan izan ezik (betiere kontuan hartuta diruz lagundutako jarduerak Gasteizko udal-mugartean gauzatu behar direla, salbu eta haien izaeragatik hori ezinezkoa bada; horrelakoetan Gasteiztik kanpo egin ahal izango dira, ondo arrazoitu ondoren). Era berean, egunean izan beharko dituzte Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak eta Gasteizko Udalarekiko zerga-betebeharrak. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, prozesu osoan ere bete beharko da azken betebeharrak hori-dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean-.

Laugarrena. Dirulaguntzaren xede diren programa eta jarduerak

Deialdia honen harira diruz laguntzen diren programa eta jarduerak aurten gauzatu beharko dira -D multzokoak izan ezik, 2020/2021 denboraldian gauzatu baitira horiek-, ondoren adierazten diren arloetakoren baten barruan.

A Multzoko Programak.

A multzoko Programen tipologia eta definizioa.

Aisialdiko kirola, jolasezko jarduera fisikoak, urteko programak, kirol ekitaldi herrikoiak, kirol-prestakuntzako campusak, txapelketak eta oroimenezko ekitaldiak.

- Kirola erregularitasunez egitea sustatzen duten jarduerak, herritar guztiei zuzenduak.
- Kirola sustatu eta zabaltzeko programa edo jarduerak, praktika, hitzaldi, solasaldi eta abarren bidez.
- Talde batek urte naturalean zehar eta egutegi baten arabera aldiaren behin egiten dituen jarduerak osatzen dute haren urteko programa. Programa garaiz eta behar bezala egin behar da, deialdi honekin bat etorritik, eta herritarrei oro har zuzenduko zaie. Oro har, ez da urteko programatzat jotzen entitate batek urtean zehar egiten dituen kirol ekitaldi desberdinen batura, eta banakako ekitaldi gisa aurkeztu beharko dira horiek. Era berean, ez da urteko programatzat hartzen erakundeak soilik bere bazkideentzat egiten duen barne-programazioa.
- Txapelketak eta oroimenezko ekitaldiak lehen ediziotik aurrera lagunduko dira; Andre Maria Zuria, Olarizu eta Gasteiz Hiria izenekoak barne.
- Ekitaldiaren izenaz gain, egiten den edizioaren hurrenkera zenbakiak agertu beharko du txapelketaren izendapenean, eta aurreko edizioaren ondoz ondokoa izan beharko du horrek.
- Andre Maria Zuria eta/edo Olarizu izena daramaten txapelketa, proba eta erakustaldiak dagokien jaiegunaren hurbileko egunetan burutuko dira: 15 egun aurretik edota 15 egun ostean. COVID-19k eragindako osasun-egoeraren bilakaeraren arabera, eta alde aurretik Kirol Zerbitzuak baimena emanda, ekitaldiak beste data batean egin ahal izango dira.

A multzoko programentzako baldintzak:

- Aldez aurretik jardueraren aurrekontu osoaren ehuneko 15 gutxienez bermatuta duten proiektu edo ekintzetarako bakarrik eman ahalko da dirulaguntza.
- Txapelketen kasuan: Andre Maria Zuria, Olarizu eta/edo Gasteiz Hiria izendapena duten bi (2) soilik onartuko dira, erakunde bakoitzeko. Beste izendapen batekin aurkeztutakoen kopurua ere bi (2) izango da, gehienez, erakunde bakoitzeko. Goizez, arratsaldez edo egun osoz egin ahalko dira, baita zenbait jardunalditan ere, baina ezingo dira izan entitate berak antolatutako beste txapelketa baten data berean.
- Campus, kirol-kontzentrazio eta antzekoen kasuan. entitate bakoitzak gehienez bi (2) eskabide aurkeztu ahalko ditu. Horietako bakoitzean 25 lagunetik gorako parte-hartzea aurreikusi behar da.
- Ezta Gasteizko Udalaren kirol sustapenerako kanpaina sartuta dauden edo horien antzekoak diren jarduerak ere.
- Ez da dirulaguntzarik emango Gasteizko udalerritik kanpo egitekoak diren jardueretarako, salbu eta beren ezaugarriengatik ezinbestean hala egin beharra dagoenean -behar bezala arrazoitu beharko da hori-.

B multzoko programak.

B multzoko Programen tipologia eta definizioa.

Izaera mugatuko kirol-ekitaldi handiak:

- Estatu mailako edo nazioarteko ekitaldiak, interesgarritzat eta aukeratzat jotzen direnak.
- Dirulaguntza jaso ahalko dute 2021ean egin diren nahiz egitekoak diren mendi-espeditzioek, baldintza hauek betetzen badituzte:
 - Gutxienez kideen ehuneko 25 Gasteizen bizi izatea.
 - Espedizioko kideen ehuneko 70, gutxienez, Euskal Mendizale Federazioan federaturik egotea.
 - Helburu diren gailurrek 6.000 metroko garaiera gainditzea.
 - Orobat jaso ahalko dute dirulaguntza eskalada-proiektuek, atal honetako lehenengo bi baldintzak betetzen badituzte.

B multzoko programentzako baldintzak:

– Aldez aurretik jardueraren aurrekontu osoaren ehuneko 30 gutxienez bermatuta duten proiektu edo ekintzetarako bakarrik eman ahalko da dirulaguntza.

C multzoko programak.

C multzoko Programen tipologia eta definizioa.

Euskal herri-kirolen programa.

Honela dio, hitzez hitz, Euskadiko Kirolaren 14/98 Legearen 2.3 artikulua: “aginte publikoek, zeinek bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak kirol autoktonoak babestea eta sustatzea izango ditu oinarri”. Horren haritik, diruz lagundu ahalko dira 2021ean egiten diren euskal pilota, herri kirol eta Arabako bola-jokori lotutako jarduerak, baldintza hauek betetzen badituzte:

– Federazio eskudunek onartutako euskal pilotaren, herri-kirolen edo eta Arabako bola-jokoaren edozein modalitatetako izatea.

– Gasteizko udalerrian garatzea.

– Euskal pilotako, herri-kiroletako eta Arabako bola-jokoko edozein modalitatetako ekitaldiak aurkeztu ahalko dira, aurreko A eta B multzoetan zehaztutako ezaugarriak betetzen dituztelarik.

C multzoko programentzako baldintzak:

– Aldez aurretik jardueraren aurrekontu osoaren ehuneko 15 gutxienez bermatuta duten proiektu edo ekintzetarako bakarrik eman ahalko da dirulaguntza.

D multzoko programak.

D multzoko Programen tipologia eta definizioa.

Kirol-taldeek estatu mailako lehiaketa ofizial federatuen egutegian parte hartzea.

2020/2021 denboraldian Estatu mailako lehiaketa ofizial federatu ez profesionalen egutegietan -Euskal Herriko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretua-parte hartzen duten taldeak aurkeztu ahalko dira atal honetan, hauei dagozkielarik:

– Estatuko goreneko kategoria ez profesionaleko lehen eta bigarren mailak*.

– Modalitate berean kategoria profesionaleko bi lehiaketa baldin badaude, Estatu mailako goreneko kategoriako lehen maila ez profesionala bakarrik hartuko da kontuan.

(*) Liga profesionaltzat joko dira kirolaren urriaren 15eko 10/1990 Legearen 41. artikuluan zehaztutakoak.

D multzoko programentzako baldintzak:

– Aldez aurretik jardueraren aurrekontu osoaren ehuneko 25 gutxienez bermatuta duten proiektu edo ekintzetarako bakarrik eman ahalko da dirulaguntza.

– D multzo honetan nahitaezkoa da federazioak jaulkitako agiri ofiziala aurkeztea, taldeak, klubak edo dena delakoak lehiatzen den edo lehiatu den ligan izena eman duela egiaztatzen duena.

– Baztertu egingo dira Espainiako Txapelketetako eta Espainiako Kopako parte hartzeak.

E multzoko programak.

E multzoko Programen tipologia eta definizioa.

Aurreko lerroetan sartzan ez diren jarduerari laguntzea, lerro honetako baldintzak betetzen dituzten kirol-erakundeek sustatuta.

Elkarteei laguntza ematea da Udaleko Kirol Zerbitzuaren helburu nagusietako bat, eragile aktibo gisa kirola eta ohitura osasungarriak sustatzen administrazioarekin elkarlanean jardun dezaten.

Dirulaguntza-deialdian, instalazioen erreserban nahiz ekintza fisikoen eta aisialdi- eta kirol-ekintzen antolakuntzan islatzen da komunzki elkarlan hori -antolakuntza- eta logistika-laguntza ematen delarik-, baina, nolahi ere, deialdi honetan, hots, COVID-19aren pandemiak krisia sortu duen urte honetan, kirol-entitateen iraunkortasunean laguntzeko mantendu egin da aurreko deialdian sortutako ildoak, kirol-entitateek eta Kirol Zerbitzuak partekatutako helburua baita herritarren artean kirol-jarduera eta ohitura osasungarriak sustatzen jarraitzeko.

Ildo hori aldi baterako da, eta mantentzen da osasun-egoerak sortutako ziurgabetasunagatik eta elkarteek beren jarduerak egiten jarraitzeko dituzten zailtasunengatik.

E multzoko programetzako baldintzak:

– Guraso-elkarteek, federazioek, kirolaren arlokoak ez diren entitateek eta federazioek ezin dute atal honetan eskaerarik aurkeztu.

– 2021eko urteko edo denboraldiko aurrekontua (2020-21 edo 2021-22) aurkeztu beharko da, batzar orokorrak, zuzendaritza-batzordeak edo antzekoren batek onetsia (akta erantsi beharko da).

– Eskaera aurkezten duen erakundeak, gutxienez 3 kategoria izan behar ditu, adin-tarte, maila edo kirol-modalitate ezberdinetakoak. Bestela, gutxienez, 50 federazio-lizentzia izan behar ditu. Hori guztia Urteko Jarduera Programan justifikatu beharko da.

Bosgarrena. Baztertuak

Ez da dirulaguntzarik emango ezaugarri hauetakoren bat duten kirol-proiektu edo -ekitaldi-entzarako:

– Deialditik kanpo geratuko dira Gasteizko udalarekin indarrean duten kontratu edo hitzarmenen bidez finantzaketa ekonomikoa duten jarduerak, D programa izan ezik; izan ere programa horretan herritarren artean kirola sustatzeko jarduera orokorrari laguntzen baitzaio.

– Teknikarien prestakuntza eta birziklatzea.

– Instalazioak edo ekipamenduak eraiki edo hobetzea.

– Kirol-klub eta -elkarteek lehiaketa federatu erregularretan parte hartzea edo halakoak antolatzea, deialdi honetako D multzoaren baitan sartzen direnak izan ezik.

– Kirol eta Osasun Sailak programatzen dituenen antzekoak diren jarduerak, sail horren programen osagarri direnak salbu.

– San Prudentzio edo Arabako txapelketa izeneko kirol programa edo ekitaldiak, laguntzeko berariazko deialdia dutelako edo beste administrazio batzuen zuzeneko eskumena direlako.

– Eskola-kirolari dagozkion jarduerak edo ikastetxeetako barne-jardueraren barrukoak, guraso-elkarteenak eta kirol-klub eta -elkarteenak. Ateak irekitzeko eta entitatea promozionatzeko jardunaldiek ere ez dute dirulaguntzarik jasoko.

– Unibertsitate-kirolari dagozkion jarduerak edo unibertsitatearen barrukoak, herritarrei oro har eskaintzen ez zaizkienak.

– Mendi espedizioei dagokienez, ez dira diruz lagunduko abentura kiroleko proiektuak eta hurbiltze trekkingak, ezta agentzia espezializatuek proposatu edo antolatutako jarduerak ere.

– Gasteizko udalerriko espazio eta instalazioetan burutu ahal izanda ere hortik kanpo burutzen diren jarduerak.

– Beste edozein, deialdi honen hamargarren oinarrian arautzen den kide anitzeko organoak hala erabakitzen duelarik.

Seigarrena. Eskabideak aurkezteko dokumentazioa, modua eta epea

20 egun baliodunekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

2021eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren Tramitazioa atalean finkatutako irizpide eta betebeharrak betetzeaz gain, oinarri hauetan adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko dute interesaturik dauden entitateek.

2021eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren Eskabideak aurkeztu beharreko agiriak eta Agiriak aurkezteko bideak ataletan ezarritakoa aintzat harturik aurkeztu beharko dira eskabideak.

A, B, C eta D multzoak.

Hurrengo dokumentazioa aurkeztu behar da:

1. Gasteizko Udalarari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.
2. II-E eranskina programa edo jarduerari buruzko txostena.
3. III-E eranskina: proiektuko/jarduerako irabazi eta gastuen egiaztagirien zerrenda. Aurrekontua.
4. IV-E eranskina bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen aitortpena.
5. V-E eranskina zinpeko aitortpena (Soldatapeko langilerik ez badu).
6. VI-E eranskina (D multzoan parte hartzen dutenek aurkeztu behar dute).

E multzoa.

Honako dokumentazioa aurkeztu behar dira eskabidearekin batera:

1. Gasteizko Udalarari diru-laguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.
2. V-E eranskina zinpeko aitortpena (soldatapeko langilerik ez badu).
3. Eskaera aurkezten duen erakundeak, gutxienez 3 kategoria izan behar ditu, adin-tarte, maila edo kirol-modalitate ezberdinetakoak. Bestela, gutxienez, 50 federazio-lizentzia izan behar ditu. Hori guztia urteko jarduera programan justifikatu beharko da.
4. Kirol entitateko idazkariak berariaz sinatutako ziurtagiria, non bi baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen kopurua adieraziko baita:

a) Entitateko bazkide izatea.

b) Urte edo denboraldiko federatu-lizentzia indarrean izatea.

5. Federazio-agiria, entitateak federazioan edo federazioetan indarrean dagoen urtean edo denboraldian dituen federazio-lizentzien kopurua adierazten duena.

Zazpigarrena. Dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak

Irizpide hauek aintzat hartuko dira dirulaguntzak eman eta kuantifikatzerakoan.

Entitate eskatzaileak dirulaguntza eskuratzeko aurkezten duen eskabidean eta eransten dion dokumentazioan ematen dituen datuak aintzat harturik aplikatuko dira eskabideak balioetsi eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak.

7.1. A, B, C eta D multzoen programetarako dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak.

1. Ekitaldi, txapelketa edo jardueraren kaudimena (lortutako baliabideak):

Proposatutako programa edo jarduera gauzatzeko baliabideak edo finantzaketa-iturriak (dirutan eta/edo gauzatan) bilatzeko ahalegina balioetsiko da. Guztizko gastu eta diru-sarreraren arteko proportzioa, gastu eta sarrera gisa sartuta lortu diren gauzako baliabideak (materialak edo zerbitzuak), horiei esker jardueraren zuzeneko gastua txikiagoa izango baita.

Laguntzen bidez lortutako gauzazko baliabideak jardueraren kaudimena balioesteko hartuko dira kontuan, baiian ez dira gastuen aurrekontuaren barruan sartuko gastu eta diru-sarreraren aurrekontuari dagokion irizpidean.

Aurrekontuaren ehuneko 15 eta ehuneko 25 artean	30 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 26 eta ehuneko 35 artean	40 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 36 eta ehuneko 45 artean	50 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 46 eta ehuneko 55 artean	70 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 56 eta ehuneko 60 artean	90 puntu
Aurrekontuaren ehuneko 61etik gora	100 puntu

2. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna parte hartzean.

Entitatean parte hartzea:

Erakundearen erabakitze- eta ordezkatzeko- organoetan parte hartzen duten emakumeen ehuneko 40koa edo gorakoa bada	30 puntu
Erakundearen gizarte oinarrian parte hartzen duten emakumeen ehuneko 40koa edo gorakoa bada	30 puntu

Jardueran parte hartzea:

Jardueraren kirol modalitatean ordezkari txikia duen generoaren partaidetza ehuneko 0-20 artekoa bada	0 puntu
Jardueraren kirol modalitatean ordezkari txikia duen generoaren partaidetza ehuneko 21-50 artekoa bada	30 puntu
Jardueraren kirol modalitatean ordezkari txikia duen generoaren partaidetza ehuneko 51tik gorakoa bada	50 puntu

Oharrak:

— Entitate eskatzaileak agiri hauen bidez aurkeztuko ditu datuak: zinpeko aitortpena, eta zuzendaritza-batzordearen osaera eta entitatearen gizarte oinarria egiaztatzen dituen agiri ofizialaren jatorrizkoa edo kopia (urteko azken akta edo aldatutako estatutuak).

— Ordezkaritza txikia duen generoa: lurralde historikoan dauden federazio-lizentzien kopurua talde osoaren aldean.

3. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte artesa.

Jarduera irekia dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat: parte-hartzaileen ehuneko 0-15 artean	30 puntu
Jarduera irekia izatea eta integrazioa sustatzen duten ekintza zehatzak antolatzea: parte-hartzaileen ehuneko 16-50 artean	60 puntu
Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako berariazko jarduera izatea: parte-hartzaileen ehuneko 51-100 artean	110 puntu

4. Berariazko programak kontuan artesa.

4.1. Kirolean euskara sustatu eta zabaltzea. Euskararen erabilera sustatzeko asmo esplizitua duten kirol-programa edo -jarduerak. Ez dira sartuko kirol arloko langileen prestakuntza-ikastaroak, ezta dibulgazio-materiala edo liburu eta aldizkariaren argitalpena ere.

Euskara euskarri, plataforma eta publizitate-ekintzetan erabiltzea	30 puntu
Jarduera bi hizkuntzetan egitea	15 puntu
Jarduera euskaraz egitea	45 puntu

Jarduera balioesteko eta geroago agiri bidez justifikatzeko, argitaratutako euskarri grafiko eta bisual guztiak aurkeztu beharko dira, erakundearen web-orrian agertu ohi direnak.

4.2. Udalaren gazte plana. Udalaren gazte planean finkatutako helburuak aurrera eramaten laguntzen duten kirol programa eta jarduerak.

Gazteentzako (14-30 urte) berariazko jarduerak egitea.	30 puntu
--	----------

Indarkeriarik eza, dituzten jarduerak, diziplina askoko jarduerak eta tradizionaltzat jotzen ez berdintasuna (integrazioa, elkartasuna eta kulturartekotasuna), parte-hartzea eta erantzukizuna, kirol-praktikaren jolas- eta sozializazio-alderdiak nabarmentzea: 5 puntu.

Kirolean joko garbia sustatzen duten jarduerak, eta gatazkak kirol jardueraren bidez konpontzea sustatzen dutenak: 5 puntu.

Dena delako klub edo elkartearen barruan —diseinatzen nahiz gauzatzen— gazteek zuzenean parte hartzea ahalbidetzen duten jarduerak, kirol-praktika kultur eta harreman-balioak sustatzearekin erlazionatzen dutelarik: 5 puntu.

Lehiakortasuna bultzatzen ez duten emaitza-sistema berriak baliatzen diren kirol-jarduerak: 5 puntu.

4.3. Ingurumenaren kudeaketan eta iraunkortasunean eragiten duten berariazko ekintza eta planak garatzea.

A. Garraioaren erabilera eraginkorrerako beharrezko diren teknikak aplikatzea.

A.1 - Bizikletentzako lur azaleko aparkalekuei edo horiek gordetzeko zerbitzuei buruzko informazioa ematea, bizikleta garraiobide gisa erabil dadin jarduera egitekoa den tokiraino heltzeko: 5 puntu.

A.2 - Kirol jarduera egitekoa den tokira heltzeko berariazko garraio iraunkorra eskaintzea, ibilgailu partikularrak erabil ez daitezen: 5 puntu.

B. Kirol-probaren ingurumen-eragina gutxitzea.

B.1. Edukiontzi espezifikoak egokitzea birziklatuko diren gaien arabera	15 puntu
B.2 Ura eraginkortasunez kudeatzeko teknikak aplikatzea	15 puntu
B.3. Hondakinen kopurua gutxitzeko neurriak	15 puntu

C. Paperaren erabilera eraginkorra sustatzea.

C.1. Paperaren erabilera murrizteko neurriak	10 puntu
--	----------

4.4. 55 urtetik gorakoaren parte hartzea.

Irekia Jarduera 55 urtetik gorakoentzat: ehuneko 0-15 artean: 20 puntu.

Jarduera irekia izatea eta 55 urtetik gorakoaren parte hartzea sustatzen duten ekintza zehatzak antolatzea: parte-hartzaileen ehuneko 16-50 artean: 30 puntu.

55 urtetik gorakoentzako berariazko jarduera: ehuneko 51-100 artean: 50 puntu.

5. Jardueraren egun- edo saio-kopurua (D multzoan ez da kontuan hartuko).

Egun bat edo biko iraupena	20 puntu
Hiru eta zazpi egun artekoa	30 puntu
Zortzi eta hamabost egun artekoa	50 puntu
Hamasei eta hogeitun egun artekoa	80 puntu
Hogei egunetik gorakoa	100 puntu

6. Kirol-esparrua (D multzoan ez da kontuan hartuko).

Parte-hartzaileen jatorria:

Lurralde-eremua: Araba	10 puntu
Euskal Autonomia Erkidegoa	20 puntu
Estatua	30 puntu
Nazioartea	50 puntu

7. Jarduerako parte-hartzaileen kopurua (D multzoan ez da kontuan hartuko).

Parte-hartzaile kopuruaren arabera gizarteak ateratzen duen etekina.

30-300 parte-hartzaile	25 puntu
301-600 parte-hartzaile	50 puntu
601 eta 900 artean	75 puntu
900 lagunetik gora	100 puntu

8. Jardueraren zabalkundea.

Ikus-entzunezko emanaldia	25 puntu
---------------------------	----------

9. Euskal herriko kirol federazioei buruzko 16/2006 dekretuaren bitartez onartutako kirol espezialitate eta modalitateak.

(Lortzen den puntuazio osoari aplikatuko zaion faktore zuzentzailea. A, B eta D ataletarako bakarrik).

Onartu gabeak	x 0,75 puntu
Onartuak	x 1,00 puntu

10. Gastu zenbakarrien aurrekontua (ikus erantsitako zerrenda).

500 eta 3.500 euro artean	50 puntu
3.501 eta 8.500 euro artean	100 puntu
8.501 eurotik gora	150 puntu

Irizpidea baloratzeko, oinarri hauetan konputagarritzat jotzen diren gastuak soilik hartuko dira kontuan. Gastu konputagarriak zuzenekoak eta zeharkakoak izan daitezke. Jarduera edo programaren guztizko gastu konputagarria zuzeneko eta zeharkako gastu konputagarrien baturaren emaitza da.

Gastu zenbakarriak (zuzenekoak eta zeharkakoak) ondorengo taulan jaso dira, eta 10.2 eta 10.3 ataletan zehaztu, hobeto ulertarazteko eta aurrekontuak zein justifikazioak errazago egiteko.

Zuzeneko gastu zenbakarriak

Jarduera/ekitaldia antolatu eta gauzatzeko gastuak.

1. Jardueraren aseguruak, autobabes-planak, ziurtagiriak.

2. Jarduerarako behar diren elementuen garraioa eta muntatzea. Espazioak eta instalazioak prestatu behar dituztenen garraio-gastuak.

3. Jarduerarako kontratatutako anbulantzia, botikin, mediku, fisioterapia eta antzekoen gastuak.

4. Jarduera zaintzeko kontratatutako enpresa segurtasuneko langile, laguntzaile eta antzekoen gastuak.

5. Soinu, aparteko argiztapen, seinaleztapen eta abarretarako kontratatutako enpresen gastuak.

6. Jarduerarako beharrezkoak diren elementuen hornikuntza-gastuak.

7. Parte-hartzaileentzako jan-edanetarako gastuak.

8. Ekitaldirako behar diren espazioen alokairu-, erabilera-eta garbiketa- gastuak.

9. Federazio-gastuak, txapelketak egiteagatiko kanon eta tasak, eta ekitaldia kontrolatzeko behar diren epaile, arbitratze eta besteren gastuak.

10. Kontratutako langileen gastuak: jardulea, parte-hartzaileak/ jarduera kontrolatzeko langileak.

11. Sarien gastuak (garaikurrak edo beste osagai batzuk).

12. Parte-hartzaileen edo ekitaldia gauzatu eta kontrolatzearekin lotutako estamentuen garrario kolektiborako gastuak.

13. Zabalkunde gastuak (bide digitalez edo hedabide inprimatuetan).

Zeharkako gastuak.

14. Jardueraren zeharkako gastuak (jardueraren zuzeneko gastu zenbakarriaren aurrekontu osoaren ehuneko 10 izango da beti).

Entitate bakoitzak aurkezten duen zuzeneko gastu zenbakarrien aurrekontu osotik, 10.2 puntuan adierazitako gehieneko haztapenak aplikatuz geroz gastu zenbakarritzat jotzen diren zenbatekoak baino ez dira balioetsiko, eta haztatutako zuzeneko gastuen batuketari horren ehuneko 10 gehituko zaio zeharkako gastu gisa.

Behar bezala egiaztatzen ez diren edo agertzen ez diren datuak ez dira aintzat hartuko.

10.1. Zuzeneko gastu zenbakarriaren kontzeptua.

Diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta behar-beharrezkoak direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat. Jarduera bat antolatzeke edo gauzatzeko ezinbestekoak diren gastuak joko dira gastu zenbakarritzat, horiek gabe ezinezkoa bailitzateke jarduera egitea.

Eskaera fasean aurrekontuan sartutako gasturen bat zenbakarri gisa sartu eta definitu ez bada, ez da kontuan hartuko dirulaguntza balioesterakoan.

Zuzeneko gastu zenbakarrien definizio hau kontuan hartuta, Kirol Zerbitzuak alderatu egingo ditu hasierako aurrekontua eta amaierako justifikazioko kontuan aurkeztutako benetako gastu zenbakarria, eta zuzendu egingo du hasieran egindako aurrekontu-balioespena. Horrek hasiera batean jarduerari esleitutako kopurua gutxitzea ekar dezake.

10.2. Zuzeneko gastu konputagarrien zerrenda, definizioa eta haztapena.

Deialdi honetan, salbuespen gisa, bertan behera utzitako jardueren gastuak aurkeztu ahal izango dira (2020. urteari dagozkionak). Gastua zein jardueratarako aurreikusita zegoen adierazi eta arrazoitu behar da.

1. Erantzukizun zibileko aseguruia, jardueratarako berariazko aseguruia, parte-hartzaileen aseguruak, segurtasun-ziurtagiriak, autobabeserako eta/edo ebakuaziorako planen gastuak.

2. Jarduerarako behar diren elementuen garraioa eta muntatzea. Eszenatokiak, harmailak, karpak, furgonetak eta abar hornitzeko eta alokatzeko kontratatutako enpresak: oro har, jarduera muntatzeko beharrezkoa den material ez-galkor guztia (amaieran antolatzailearen jabetzan geratzen ez dena edo erosteko ez dena). Espazioak eta instalazioak prestatu behar dituztenen garraio-gastuak (markajeak, neurketak, egokitze-lanak...).

Ez ditu barne hartzen etxebizitzatik lanera egindako joan-etorriak eta jarduerak sustatzeko egindakoak.

3. Jarduerarako kontratatutako anbulantzia, botikin, mediku, fisioterapia eta antzekoen gastuak.

4. Jarduera zaintzeko kontratatutako enpresen gastuak, segurtasuneko langileak, autobabeserako planen osagarriak, etab.

5. Soinu, aparteko argiztapen, seinaleztapen eta abarretarako kontratatutako enpresen gastuak.

6. Jarduera edo ekitaldirako beharrezkoak diren hornikuntza-gastuak. Denbora laburrerako balio dutenak izan behar dute, eta erabili ondoren berriz saltzeko balio ez dutenak (suntsikorrak).

7. Parte-hartzaileentzako jan-edarietarako gastuak: probari dagozkion gastuak eta ekitaldi edo jarduerarako iragarri direnak: lasterketetako parte-hartzaileentzako jan-edariak, campusetako bazkariak, boluntarioentzako jan-edariak... Horietatik kanpo geratzen dira aperitiboak, hamai-ketakoak, proben aurkezpenetako cateringak, antolakuntzaren bazkari eta afariak, pasta partyak eta antolakuntzak lasterketaren aurretik edo ondoren eskaintzen dituen janari eta afariak.

Kontzeptu horri dagozkion kopuru guztien batura ezingo da izan aurrekontu osoaren ehuneko 50etik gorakoa. Gastu zenbakarrien aurrekontua puntuatzeko orduan aplikatuko da muga hori

8. Jardueretarako instalazioak alokatu, erabili eta garbitzeari dagozkion gastuak, udal instalazioetan egiterik ez dagoen jarduera edo ekitaldiak badira (ongi arrazoitu beharko da hori).

Instalazio pribatuei dagozkien fakturen orduko prezioa kalkulatzeko (erabilera justifikatu eta gero), instalazio publikoei dagokiena hartuko da erreferentziazat eta zenbatuko den oinarrizko preziozat.

9. Federazio-gastuak, txapelketak egiteagatiko kanon eta tasak eta ekitaldia kontrolatzeko behar diren epaile, arbitratze eta besteren gastuak. Ez daude barne, inolaz ere, kirol ekitaldiko jarduleak kontratatuzko gastuak.

Arbitrajeetarako gastuetan honakoak bereizi behar dira:

A. Arbitraje erakunde edo elkargo batek arbitrajeagatiko faktura igortzen dio antolatzaileari.

Fakturen kontzeptu eta berme guztiak izan behar ditu, eta BEZa jaso, salbu eta igortzailea dagokion BEZa ordaintzetik salbuetsita badago. Hala bada, salbuespen horren egiaztagiria erantsi behar zaio fakturari.

Fakturan honako hauek zehaztu beharko dira, banaka: epaileen izen-deiturak, arbitrajearen lekua, egunak eta ordu kopurua, eta orduko ordaindutakoa.

B. Antolatzaileak kopuru bat ordaintzen die arbitroei:

Abonu-agiri indibidualak aurkeztu behar dira, xehetasun guztiekin eta jasotzaileak izenpetuta. Justifikazioko kontu-zerrenda batean zerrendatuko dira ordainketa-agiri horiek, zenbakituta, eta bertan honako hauek adierazita: izenburu edo goiburuan, ekitaldi edo txapelketaren izena, egunak, lekua eta ordua; zerrendan, berriz, izen-deiturak, arbitratzeko lizentziaren zenbakia, arbitratze orduak, orduko prezioa eta ordaindutako zenbatekoa. Zerrendako alderdi guztien baturak bat etorri behar du aurkeztutako ordainketa-agirien guztizkoarekin.

PFEZren atxikipena kalkulatzeko, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauari jarraituko zaio. II. Titulua. Zerga-egitatea. 9. artikulua. Salbuesitako errentak, 36. puntua.

10. Kontratatutako langileen gastuei dagokienez honako hauek bereiziko ditugu:

A. Antolatzaileak ez diren langileak:

A1. Jarduera edo ekitaldiko jarduleen eta parte-hartzaileen jendaurreko emanaldietarako kontratu edo gastuak. Onartu egingo dira kirolariak, jarduleen ordainsariak, mantenu ordainak eta garraioak barne, beti ere beharrezkoak badira. Kanpo geratzen da erabili behar dituzten jantzi edo elementuen erosketa, horrek ematen duen zerbitzuaren parte izan behar baitu.

Liga profesionalizatuetan, kirolariak erostea eta/edo eskualdatzea baztertzen da.

A2. Ekitaldia gauzatzeko behar diren langile-gastuak. ez dira antolatzaileentzat joko areto-be-giraleak, arloetako begirale arduradunak, azafatak, aurkezleak, ingurumen-iraunkortasunaren arloko teknikariak eta abar laguntzaile teknikozat joko dira.

B. Antolakuntzako langileak:

Kontratazio horiei dagozkien gastuak jarduera antolatu eta garatzen diharduten pertsona edo entitateak direnean zenbatu ahalko dira, baina ez koordinazioan edo/eta entitatearen administrazioan dihardutenean.

Kontzeptu horri dagozkion kopuru guztien batura ezingo da izan aurrekontu osoaren ehuneko 35etik gorakoa. Gastu zenbakarrien aurrekontua puntuatzeko orduan aplikatuko da muga hori.

11. Sarien gastuak (garaikurrak edo beste osagai batzuk). Garaikurren orde besterik opari batzuk ematen badira, ez dira inola ere horien osagarri izango, hau da, saritzeko garaikurra ala oparia emango da.

Kontzeptu horri dagozkion kopuru guztien batura ezingo da izan aurrekontu osoaren ehuneko 35etik gorakoa. Gastu zenbakarrien aurrekontua puntuatzeko orduan aplikatuko da muga hori.

Diruzko sariak ez dira kontuan hartuko, ez gastu konputagarrien aurrekontua baloratzeko, ez dirulaguntzari gastu hori egozteko.

12. Parte-hartzaileen edo ekitaldiaren gauzatze eta kontrolarekin lotutako estamentuen joan-etorrietarako garraio kolektiboko enpresen zerbitzuengatikoko gastuak, baita ibilgailuak (autoak, furgonetak) alokatzeko gastuak ere. Justifikazioko kontuaren bidez behar bezala dokumentatutako joan-etorri/kilometroen gastuak ere izan ahalko dira, justifikazioari buruzko atalean jasotakoaren ildotik.

2. atalean bezala, ez dira halakotzat joko etxebizitzatik lanera egindako joan-etorriak eta jarduerak sustatzeko egindakoak.

Kontzeptu horri dagozkion kopuru guztien batura ezingo da izan aurrekontu osoaren ehuneko 35etik gorakoa. Salbuespena izango dira A, B eta C multzoetako jarduerak, baldin eta federazioaren araudiak/eskaerak horretara behartzen dituela egiaztatzen badute, eta D multzoko jarduerak, horien kasuan batura ezingo baita izan aurrekontu osoaren ehuneko 75etik gorakoa. Gastu zenbakarrien aurrekontua puntuatzeko orduan aplikatuko da muga hori.

13. Jarduera edo ekitaldiari bitarteko digitzalek edo inprimatuz zabalkundea emateko gastuak.

10.3. Zeharkako gastuak.

14. Atal honetarako, aurrekontuko zuzeneko gastu zenbakarri guztiaren ehuneko 10a zenbatuko da beti.

Diruz lagundutako jarduerarekin zuzeneko loturarik ez duten gastuak barne hartuko dira: elektrizitatea, berokuntza, ura, telefonoa, bulego eta biltegien alokairuak, zerbitzu orokorrak, egitura-gastuak eta abar. Koordinazio eta administrazio lanez arduratzen diren langileen gastuak ere atal honetan sartuko dira.

Kontzeptu honi dagozkion gastuak justifikatzeko ez da agiririk aurkeztu beharrik.

7.2. D multzorako balorazio irizpideak.

1. Lehiaketaren kategoria ofiziala.

Kategoria ofizialen esparruak.

2. Mailako kategoria nazionalen parte hartzea	50 puntu
1. Mailako kategoria nazionalen parte hartzea	100 puntu

2. Lehiaketa ofizialaren jardunaldi-kopurua.

10 jardunaldi arte	0tik 20ra puntu
11 eta 20 jardunaldi artean	21etik 40ra puntu
20 jardunaldi baino gehiago	41etik 60ra puntu

3. Joan-etorri kopurua.

Lehiaketa-egutegiaren arabera.

5 joan-etorriak arte	0tik 25era puntu
6-10 joan-etorri artean	26tik 50era puntu
10 joan-etorri baino gehiago	51tik 100era puntu

4. Joan-etorrietako kilometro-kopurua.

Kilometroak, guztira, lehiaketa-egutegiaren arabera.

2.000 km arte	0tik 20ra puntu
2.001 eta 5.000 km artean	21etik 50era puntu
5.001 km-tik gora	51tik 100era puntu

7.3. E multzoko entitateentzako dirulaguntzak emateko irizpide objektiboak.

1. Kirol entitate eskatzaileko bazkideak eta kirol-lizentzia dutenak (kirolariak zein entrenatzaileak): 10 puntu bi baldintza hauek betetzen dituen pertsona bakoitzeko: entitateko bazkidea izatea eta kirola egiteko federazioaren lizentzia edukitzea, 2021ko urtarrilaren 1az geroztik.

2. Kirol entitate eskatzaileko bazkide ez direnak baina kirol-lizentzia dutenak (kirolari zein entrenatzaileak): 6 puntu, 2021eko urtarrilaren 1az geroztik kirola egiteko federazioaren lizentzia duen pertsona bakoitzeko. Federazioaren lizentziaren edo federazioak jaulkitako agiriaren kopia.

Zortzigarrena. Dirulaguntzak emateko prozedura

2021eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren "Emateko prozedura" atalean xedatutakoari jarraituz, elkarren arteko lehia baliatuko da deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozedura gisa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoaren ildotik.

Bederatzigarrena. Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko prozedura

Entitate eskatzaileetako bakoitzari dagokion dirulaguntza zehazteko, prozedura hau baliatuko da:

– Lehena: aurkeztutako eskabide bakoitza deialdia osatzen duten bost programetako bati esleituko zaio, dirulaguntza eskabidean proposatutako jardueraren tipologia eta ezaugarriak kontuan hartuz.

– Bigarrena: eskabideak balioesteko irizpide objektiboen arabera aztertuko dira eta programa bakoitzean hari esleitutako eskabide guztien puntuak batuko dira.

– Hirugarrena: azkenik, programa bakoitzari dagokion diru-zenbatekoa zati lehiatzen diren eskabideen puntu guztiak egingo da. Horrela lortuko da puntu-tipoaren balio ekonomikoa, eta hori eta eskatzaile bakoitzak lortutako puntuak biderkatuz lortzen den kopurua izango da bakoitzarentzako dirulaguntzarako behin-behineko proposamena.

A, B, C eta D ataletan dirulaguntza jaso dezaketen programa eta jardueretarako eragiketa horiek eginda sortzen den zenbatekoa diruz laguntzekoa den jardueraren benetako defizita baino handiagoa bada, azkenean proposatzen den dirulaguntza benetako defizitera doitu da, hau da, eskatzaile bakoitzari ematen zaion gehieneko kopuruak ez du inola ere gaudituko jardueraren defizita, zeina antolatzeke egin beharreko gastuak eta jarduerak ematen dituen irabaziak kontuan hartuz kalkulatu da.

E ataletan dirulaguntza jaso dezaketen programa eta jardueretarako, entitate bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 3.000,00 eurokoa izango da.

Hamargarrena. Eskabideak balioetsi eta izapidetzea, eta dirulaguntzak emateko prozedura ebaztea

2021eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren "Instrukzioa eta ebazpena" atalean xedatutakoari jarraituz, batzorde bat eratuko da, dagokion udal zerbitzuko teknikariek osatutakoa. Ebazpen-proposamen banakatua egingo dio batzorde horrek ebazteko eskumena duen organoari.

Hauetako osatuko dute batzordea: Kirol eta Osasun arloko zinegotzia, Kirol eta Osasun Saileko zuzendaria, Kirol Zerbitzuko burua, Kirol Zerbitzu Orokorren Ataleko burua eta Zerbitzu Orokorreko teknikariak.

Orobat izango du organo horrek eskumena deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozedura bideratzeko, eta ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Eskabideak oinarrietan ezarritako irizpideei jarraiki balioetsi ondoren, kide anitzeko organoak ebaluazio-txosten teknikoak egingo du, ebazpen-proposamenaren oinarri izango dena. Udalaren webguneko iragarki-taulan argitaratuko da eta entitate eskatzaileei bide elektronikoz emango zaie horren berri, 10 egun balioduneko epean, alegazioak aurkezterik izan dezaten.

Oinarri Orokorretan aurreikusitakoaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarra da deialdia onetsi eta ebazteko organo eskuduna, baina zinegotzi ordezkariari eskuordetu ahalko dio eskumena.

2021eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren "Ebatzi eta jakinarazteko epea" atalean xedatutakoari jarraituz, legez galdatzen direnez gain, datu hauek jasoko dira ebazpenean:

- Dirulaguntza jasoko duten erakunde eskatzaileen zerrenda.
- Onuradun bakoitzari esleitutako puntuaketa eta zenbatekoa.
- Emandako dirulaguntza justifikatzeko modua.
- Gainerako eskabideen ezespen adierazia.
- Ebazpenaren aurka zein errekurtsio jar daitekeen, zein organotan eta zein epetan.

Hamaikagarrena. Dirulaguntza ordaintzea

Diru-laguntzak ordaintzea bakarrez ordaintzeko dira, jarduera amaitu ondoren eta guztiz gauzatu dela justifikatu ondoren.

Salbuespen gisa, ordaintzea aurreratua egin ahal izango da, erakunde onuradunak behar bezala arazoituta eskariz. Horrek berekin ekarriko du justifikazioa egin aurretik funtsak ematea, diruz lagundutako programa edo jarduera gauzatzeari datxezkion jarduerak gauzatu ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

Hamabigarrena. Dirulaguntzak justifikatzea

2021eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorren "Dirulaguntzak justifikatzea" xedatutakoari jarraituz egingo da, baldintza partikular hauekin:

- Justifikatzeko epea.
- Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea bi hilabetekoa izango da, diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia amaitzen denetik. Deialdia ekitaldia egin ondoren argitaratzen bada, hilabeteko epea emango da dirulaguntza emateko ebazpena argitaratzen denez geroztik.
- Azaroan eta abenduan gauzatzen diren jardueren eta urteko programen kasuan, hurrengo urteko urtarrilaren 10era artekoa izango da justifikatzeko epea.

12.1 A, B, C eta D multzoen justifikatzea.

Jarduera eta zabalkundea justifikatzea.

– Jardueraren garapenaren oroitidazki deskriptibo eta grafikoa, deialdiko balioespen-irizpideen justifikazioa oinarritzeko.

– PDF formatuan edo antzekoan aurkeztuko dira jarduerarako landutako esku-programak, kartelak, argitalpenak, prentsa dosierrak, audientziak, emanaldiekiko estekak, albisteak, prentsaurrekoak, webguneetako eta sare sozialetako argitalpenak, etab.

– Irudien dosierra/txostena aurkeztuko da, eta euskarrien zerrenda, non erakundearen markak ikusiko baitira, eta Gasteizko Udalaren dirulaguntza jaso izanari zabalkundea eta publizitatea eman zaiola agerian utziko.

– Izena ematea beharrezko den txapelketa edo jarduerak izanez gero, parte-hartzaileen izenak eta horiek ordaindutako kuotak jasotzen dituen zerrenda erantsi beharko da.

Zuzeneko gastuak justifikatzea.

– Jatorrizko faktura guztiak, eta horiek ordainduta daudela egiaztatzeko agiriak (banku-entitateak emanak) aurkeztuko dira.

– Fakturarik gabeko bidai-gastuak badaude (tiketak, txartelak edo kilometroak), horiek autolikidazio-orri batean aurkeztuko dira, behar bezala arrazoituta. Bertan honako hauek jasoko dira: pertsonen identifikazioa, ibilgailuaren matrikula, bidaiaren nondik-norakoa, kilometro-kopurua, eta ordaindutako prezioa kilometroko. Era berean, egindako gastua frogatzen duten agiriak aurkeztuko dira (gasolina, autobideak eta/edo billeteak), horiek izango baitira gastua kalkulatzeko oinarria.

Justifikazioko kontu batean aurkeztu behar dira, behar bezala arrazoituta, eta bertan alderdi hauek adierazi: pertsonen identifikazioa, ibilgailuen matrikula, egindako kilometroak, irteera eta helmuga eta kilometroko ordaindutako prezioa. Halaber, gasolina eta autopista gastuak egiaztatzeko agiriak aurkeztu behar dira, eta horiek hartuko dira egotzi beharrekoa kalkulatzeko oinarritzat.

Langile-gastuak:

Nahitaezkoa izango da soldatapeko langileak eta/edo profesionalak kontratatu eta ordaintzeko gastuen justifikazioa eta ordainketa aurkeztea.

Jarduerarako eskusiboki kontratatuta ez diren langileen gastuei dagokienez, azalpen-ageria aurkeztu beharko da, gastua diruz lagundutako jarduerari egoztea arrazoitzeko, xehetasun hauek emanez: nor den, zein zeregin/lanpostu betetzen duen, zenbatekoa den jarduerari egotz dakioken ehunekoa, zenbat ordu sartu duen horretan eta zenbatekoa den orduko prezioa.

– Justifikazio fasean sartutako gasturen bat aldeztu aurretik eskaera fasean aurrekontuan jaso ez bazen, ez da kontuan izango justifikaziorako, salbu eta gastua zenbakarria izan bazitekeen eta azkenean egin edo justifikatu ez den aurrekontuko beste bat ordeztu badu.

Diru-sarrerak justifikatzea.

– Udalak emandako dirulaguntzaz gain beste administrazio publikoren batek emandako besterik jasotzen bada, bati edo besteri egotzi beharko zaio fakturretako bakoitza. Zerrenda bat aurkeztu beharko da, faktura bakoitza identifikatzen delarik, eta orobat adierazten zein administrazio publikori egozten zaion eta zein den zenbatekoa.

– Entitate pribatuen eta abarren ekarpen ekonomikoa jasotzen bada, akordioaren kopia edo entitatearen ziurtagiria aurkeztu beharko dira, eta aurreko puntuan adierazitako modu berean jokatu.

– Parte hartzaileek jarduera edo kirol ekitaldiengatik ordaindutako kuotetatik lortutako diru-sarrerak zehaztu behar dira.

– Honakoengatik lortutako diru-sarrerak ere zehaztu behar dira: sarrera-salmenta, produktu-salmenta, standak hirugarrenei alokatzea, taberna eta jatetxea, eskubideen emakidagatik lortua (bidaia-agentzia, hotelak...), eta ekitaldiaren antolakuntzari lotutako bestelakoak.

Gauzazko laguntzak.

Material, hornikuntza edo zerbitzuen bidez beste enpresa edo entitate batzuetatik lortutako baliabideak justifikatzeko, emate-agiriak aurkeztuko ditu diruz lagundutako entitateak, edo laguntzaileak ziurtagiriak emango, izen soziala eta dohaintzan emandako produktu edo ondaren balio ekonomikoa zehaztuta.

12.2 E multzoaren justifikatzea.

– 2021eko urteko edo denboraldiko aurrekontua (2020-21 edo 2021-22) aurkeztu beharko da, batzar orokorrak, zuzendaritza-batzordeak edo antzekoren batek onetsia (akta erantsi beharko da).

– Gastu osorik estaltzen duten zuzeneko gastuen egiaztagiria aurkeztu beharko dira (nominak, kirol eta osasun materialaren erosketen fakturak, aholkularitzak, federazio-lizentzien gastuak, osasun-azterketak, aseguruak, publizitate-zerbitzuak...).

– Gastu hori estaltzeko beste finantzaketa-iturririk jaso ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena ere.

Hamahirugarrena. Pertsona edo entitate onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun gertatzen diren entitateek 2021eko dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorretako "Onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea" atalean ezarritakoari jarraitu beharko diote.

Bereziki, betebeharrak hartu beharko dituzte aintzat:

1. Agiri, publizitate, irudi edo material orotan, hizkuntzaren erabilera ez sexista egin beharko dute, emakumea diskriminatzen duten irudiak edo estereotipo sexistak eragotzi, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta rol eta genero-identitateen aniztasuna sustatu irudietan.

2. Ekitaldiaren zabalkundea euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da. Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

3. Erakundearen marken zabalkundea: Gasteizko Udalaren marka instituzionala agertuko da dirulaguntza jaso duten jardueren inguruko publizitate edo propaganda guztietan, hura inprimatu edo ikustea ahalbidetzen dutenean. Orobat, hiriaren marka jarriko da eragin handiena duten irudi-euskarrietan, bi markak batera erabiltzeko araudian gomendatutakoari jarraituz.

Diruz lagundutako jardueraren antolatzaileak marka instituzionalen erabilera okerra saihestu behar du, eta berariaz: markaren altuera eta zabaleraren arteko proportzionaltasuna, formak, kokapena, koloreak, tipografiak, trazuak eta elementuak.

Marka instituzionalak zuzen erabiltzen laguntzeko, honako hau adierazten da:

a) Bi marka daude: Gasteizko Udalaren marka instituzionala (armarria) eta hiriaren marka (Vitoria-Gasteiz).

b) Udalaren webgunean eskuratu daitezke bertsio ezberdinak, eta marka instituzionalaren zein hiriaren markaren identitate eta erabilerari buruzko eskuliburua, baita udalaren markak batera nola agertu behar diren azaltzen duen eskuliburua ere, nola eta non jarri behar diren azaltzen duten adibideak barne. Esteka: https://www.vitoria-gasteiz.org/wb021/was/contentidoAction.do?idioma=es&uid=u4033a5e8_128c88d7b13_7fe7).

c) Zalantzarik izanez gero, imagen-corporativa@vitoria-gasteiz.org helbidera jo daiteke

Hamalagarrena. 0Azpikontratazioa

2021eko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretan Azpikontratazioa "atalean xedatutakoari jarraituz egingo da, berezitasun honekin:

– Jardueraren ehuneko 100era arte azpikontratatea baimentzen da dirulaguntzen ildo honetan.

Hamabosgarrena. Gasteizko udalaren beste laguntza batzuekiko bateraezintasuna

Dirulaguntza hauek arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoa gorabehera, deialdi honen barruan ematen diren dirulaguntzak ez dira bateragarri izango Udalaren beraren beste sail edo zerbitzu batzuek edo berari atxikitako beste erakunde batzuek xede, programa edo jarduera bererako ematen dituzten bestelako dirulaguntzekin, salbu eta alde biek batera berariaz hala baimentzen badute.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko martxoaren 26an

Administrazio orokorreko teknikaria

MANUEL PÉREZ DE LAZARRAGA

Dirulaguntza eskabidea aurkezteko erantsi beharreko dokumentazioa

A, B, C eta D multzoak

1. Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.
2. II-E eranskina: Programari edo jarduerari buruzko txostena.
3. III-E eranskina: Proiektuko/jarduerako irabazi eta gastuen egiaztagirien zerrenda. Aurrekontua.
4. IV-E eranskina: Bestelako diru-sarrera edo diru-laguntzen aitorpena.
5. V-E eranskina: Zinpeko aitorpena (soldatapeko langilerik ez badu).
6. VI-E eranskina (D multzoan parte hartzen dutenek aurkeztu behar dute).

E multzoa

1. Eranskina: Gasteizko Udalari dirulaguntzak eta laguntza ekonomikoak eskatzeko orria.
 2. V-E eranskina: zinpeko aitorpena (soldatapeko langilerik ez badu).
 3. Urteko Jarduera programa. bertan egiaztatu behar da eskaera aurkezten duen erakundeak, gutxienez 3 kategoria dituela, adin-tarte, maila edo kirol-modalitate ezberdinetakoak; edo bestela, gutxienez, 50 federazio-lizentzia dituela.
 4. Entitateko idazkariak berariaz sinatutako ziurtagiria, non honako bi baldintza hauek betetzen dituzten pertsonen kopurua adieraziko baita:
 - a) Entitateko bazkide izatea.
 - b) Urteko edo denboraldiko federazio-lizentzia indarrean izatea.
 5. Federazioak emandako ziurtagiria, non zehazten den entitateak urte edo denboraldi horretan bertan indarrean dituen federazio-lizentzien kopurua.
- Eskabidea aurkezteko edota justifikazioa egiteko behar diren eranskinak udalaren webgunean argitaratuko dira, esteka honetan: http://v-g.eus/dirulaguntza_kirolerakundeak.